# Iragarpenak
# Anuncios

OSASUNKETA ETA GIZARTESEGURANTZA-SAILA

Sail honek behar dituen lanariak akuratzeko OINARRI-ARAUAK. 2437

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Berarizko Bilkuran hartutako Erabakia, arauz ez bestela izendatutako "1982garreneko Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Foruko Herri-Arduralaritzaren Zerbitzurako Lanarigoaren Lanbide-Baldintzak Araupetzen dituen III Bateango Hitzarmena" delakoari Lanarigoaren Arauditzat onartzeari buruz. 2440

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL

BASES para la contratación del diverso personal que precisa cubrir este Departamento. 2437

DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

ACUERDO en sesión extraordinaria por el que se adopta como Reglamento de Personal el informalmente llamado "III Convenio Colectivo de las Condiciones de Empleo del Personal al Servicio de la Administración Pública Foral de la Comunidad Autónoma del País Vasco". 2440

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA-SAILA

### 1450

Hezkuntza-Sailaren 1982garreneko Irailaren 2ko AGINDUA, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteango Berarizko Hezkuntzako Irakaskuntza araupetuz.

Orotariko Hezkuntza-Legearen 49garren Atalak dionez, Berarizko Hezkuntzak zera du xede: Mentsdun eta egokigaitz guztiak, horretarako sendabide egokien bidez, bakoitzaren gaitasunaren eta hezkuntzaren ondorioen arauera ahalik eta gizarte-bizitzarik beteenean, eta, ahal dedin guztietan, laguntza-beharrik gabe konpontzeko eta gizarterako gauza ba direneko ustea izateko bidea eman diezaien lan-erapidetza baten eskuhartu dezaten gertatzea.

Sendabiderapena, sailkapena eta arauzkotzea dira, beste hezkuntza-aukera batzuekiko begirunearen kaltetan gabe, guztiek Berarizko Hezkuntzaren gai diren haurren beharrentzako erantzun egokitzat onartzen dituzten irizpideak.

Irizpide hoiek egiteratu ahal izateko, eskola haur hoien beharrei egokitzen hastea ezinbestekoa da, irakaslegoa gaitzeari eta sortarazi beharko diren eskolari laguntzezko siko-irakaspidetzazko egiturak antolatzeari lehentasuna emanaz.

Orotariko Hezkuntza-Legearen 50garren Atalak agintzen duenez, Hezkuntza eta Zientzia-Ministeritzak Berarizko Hezkuntza behar duten ikasleak aurkitu eta hoiekiko gaitz-azterketa egingo du eta baita, horretarako gaitasuna duten ihardutze-erakundeekin elkarlanean, berarizko hezkuntzaren helburuen, egituren, iraupenaren, irakasgaien eta mugen zehaztapena ere, hoiek mentsdun edo egokikaitz bakoitzaren maila, gaitasun eta aurreratzeko ahalmenari egokitzen zaizkiela.

Abenduaren 30eko 3.195/1980 Errege-Dekretoz Erresumaren Berarizko Hezkuntzaren alorreango zerbitzu batzuk Euskal Herriko Autonomia-Elkarteari eskuratzen zaizkio, eta behin-behingo Ihardutze-Arauei buruzko Hezkuntza-Sailaren Jorrailaren 6ko Dekretoz, eskuratutako Berarizko Hezkuntzako zerbitzuak Irakaskuntza-Artezkaritzari eratxiki, eta Dekreto

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

### 1450

ORDEN del Departamento de Educación del 2 de Setiembre de 1982, por la que se regulan las enseñanzas de Educación Especial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Educación Especial tiene como finalidad, como dice el artículo 49 de la Ley General de Educación, preparar mediante el tratamiento educativo apropiado, a todos los deficientes e inadaptados, para una incorporación a la vida social tan plena como sea posible en cada caso, según sus condiciones y resultados del sistema educativo y a un sistema de trabajo en todos los casos posibles que les permita servirse de sí mismos y sentirse útiles a la sociedad.

Integración, sectorización y normalización son principios unánimemente admitidos como respuesta idónea a las necesidades educativas del niño sujeto de Educación Especial, aun siendo respetuosos con otras opciones educativas.

Para hacer posibles tales principios, es imprescindible comenzar un proceso de adecuación de la escuela a las necesidades de estos niños, incidiendo con prioridad en la formación del profesorado y las estructuras psicopedagógicas de apoyo a la escuela que deberán ser creadas.

El artículo 50 de la Ley General de Educación dispone que el Ministerio de Educación y Ciencia establecerá los medios para la localización y el diagnóstico de los alumnos necesitados de Educación Especial que establecerá también en colaboración con los organismos competentes los objetivos, estructuras, duración, programas y límites de educación especial, que se ajustarán a los niveles, aptitudes y posibilidades de desenvolvimiento de cada deficiente o inadaptado.

En virtud del Real Decreto 3.159/1980, de 30 de Diciembre, se traspasan servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Educación Especial y mediante el Decreto 50/1981 de 6 de Abril sobre Normas Orgánicas provisionales del Departamento de Educación se adscriben los servicios de Educación Especial transferidos a la.

hori osabideratzeko eta egiteratzeko beharrezko izan daitezen manuak emateko eskua Hezkuntza-Sailburuari ematen zaio.

Hori dela eta, honako hau erabakitzen dut:

*Lehenengo Atala.*–Honako hauek izango dira Berarizko Hezkuntzaren gai:

a) Adimen-mentsen bat duten ikasleak, ments hori soila nahiz jatorrizkoetan, metabolismotikakoetan, zauriduratatikakoetan etabar sailkatutako gaitz-zantzuei dagokienetakoa izan; hoientzako irakaskuntza-bideak burujabetza bat eta ezagutza-pilo bat lortu dezatenera joko dute eta, gero, lanean ahalik eta modurik osoenean eta asabetegarrienean sar daitezenera.

b) Somakinetako mentsen ondoriozko gaitzak (itsuak, gorrak), neurolojiamailakoak (buru-helbarriak) etabar izan eta adimen osoaren jabe diren ikasleak; hoiek, erabili behar diren irakaskuntza-teknikabideen arazoa edo bere mentsa ela eta eskola-hezkuntzaren alderdi guztietara iristeko dituzten oztopoak gainditzeko zenbait gizartemailako arazoari (etxegintza-oztopoak, garraioak etabar) aterapideak eman beharra dakarkigu aurrera.

c) Funtsean sikiatria edo sikolojia-alorretatikakoak diren gaitzak dituzten ikasleak, eskolako aintzinapenari eta ikasgaiei behin-behingoan edo moda iraunkorrez egokitu ezinekoak barne. Horrelakotan sendalari-taldeak irakasleekin harremanak izango ditu gaitzak ulertarazi eta haurrarekiko neurri edo jokabide bereziak hartzeari buruzko aholkuak emateko.

*2garren Atala.*–Berarizko Hezkuntzaren gai diren haurrek honako eskola hauetara joan ahal izango dute:

– O.H.O.-ko agizko ikasgeletara.

– O.H.O.-ko Ikastetxeetango berarizko ikasgeletara.

– Berarizko Hezkuntzarako Ikastegi berezitara.

*3garren atala.*–Haur bat Berarizko Hezkuntzako ikasgela baten edo Berarizko Hezkuntzako Ikastetxe berezi baten hartu baino lehen gaitz-azterpen bat egin beharko zaio, Irakaskuntza-Artezkaritzak bere garaian jarriko duen ereduaren arauera. Gaitz-azterpen horrek, eskola-lana eta ikasketak egiteko erarik egokiena eman dezan artezpide-egitamu bat eramango du aldean. Gaitz-azterpen hori 11garren Atalean esaten den lanbidearteko taldeak egingo du, eta horren ezean horren sendespena izan beharko du.

*4garren atala.*–Agizko arau gisa, Berarizko Hezkuntzako ikaslegak izan ditzan ezein Ikastegik, Agizko nahiz Berarizko dela, Agizko Eskolan ezin sartu ahal izan eta sailez berari dagozkion haurrak hartu beharko ditu.

*5garren atala.*–Berarizko Hezkuntzarako ikasgelak ihardunean izan ditzaten Irakastegi guztietan ikasle bakoitzarentzat zehaztapidetza bat irekiko da, honako hauek bertan erasoz:

– Agindu honen 3garren Atalak dion gaitz-azterpena.

– Atal horretxek dion artezpide-egitamua.

– Balio-erizpen bereziek eman ditzatenak.

– Interesgarri izan daitezkeen beste ohar batzuk.

*6garren atala.*–Hezkuntza-lana eginkorragoa izan dedin, ikasleak taldeka sailkatzea adinaren, gaitasungabetasunmoetaren eta gizarteratze-mailaren arauerako idekotasunirizpidez egingo da.

Dirección de Enseñanzas y se autoriza al Consejero de Educación para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del citado Decreto.

En su virtud dispongo:

*Artículo 1.*–Serán sujetos de Educación Especial:

a) Los alumnos con un déficit intelectual ya sea simple o en el contexto de una patología sistematizada de tipo genético, metabólico, lesional, etc., donde las medidas pedagógicas tenderán a la consecución de una autonomía personal, a un conjunto de conocimientos y más adelante a una inserción laboral lo más completa y satisfactoria posible.

b) Los alumnos con transtornos representados por déficits de tipo sensorial (ceguera, sordera), neurológico (parálisis cerebral)... etc., con aptitudes intelectuales íntegras que plantean el problema de la aplicación de técnicas pedagógicas o de solución de problemas sociológicos (barreras arquitectónicas, transporte, etc.) que superen el obstáculo que representa el déficit para el acceso a los diversos aspectos de la formación escolar.

c) Los alumnos cuyos trastornos son de origen fundamentalmente psiquiátrico o psicológico, incluyendo la no adaptación momentánea o durable al ritmo y a los programas escolares. En estos casos, el equipo encargado de la terapia estará en contacto con el maestro para su asesoramiento a nivel de la comprensión de los trastornos y de la adopción de medidas o actitudes especiales respecto al niño.

*Artículo 2.*–Los niños sujetos de Educación Especial podrán ser escolarizados:

– En aulas ordinarias de E.G.B.

– En aulas especiales de Colegios de E.G.B.

– En Centros específicos de Educación Especial.

*Artículo 3.*–La admisión de cualquier niño en un aula de Educación Especial o en un Colegio específico de Educación Especial deberá estar precedido de un diagnóstico según modelo que será establecido oportunamente por Resolución de la Dirección de Enseñanzas. Dicho diagnóstico irá acompañado de un plan de orientación que indique la forma más adecuada de llevar a cabo la escolarización y el aprendizaje. Este diagnóstico será realizado por el equipo multiprofesional a que se refiere el artículo 11; en caso de que no sea así, deberá llevar su refrendo.

*Artículo 4.*–Todo Centro, Ordinario o Específico, que disponga de aulas de Educación Especial deberá acoger, como regla general, a aquellos niños para los que no haya sido posible la integración en la Escuela Ordinaria y que pertenezcan a su sector.

*Artículo 5.*–En todos los Centros docentes donde funcionen aulas de Educación Especial, se abrirá un expediente para cada alumno en el que se harán constar:

– El diagnóstico a que se refiere el artículo 3 de la presente Orden.

– El plan de orientación a que se refiere el mismo artículo.

– Resultados de las distintas evaluaciones.

– Otras observaciones de interés.

*Artículo 6.*–Para una mayor eficacia de la labor educativa, el agrupamiento de los alumnos tenderá a la homogeneidad, según criterios de edad, tipo de discapacidad y nivel de socialización.

*7garren atala.*—O.H.O.-ko Agizko nahiz Berarizko Hezkuntzarako bereziak izan eta Berarizko Hezkuntzarako hiru ikasgela edo gehiago izan ditzaten Ikastegietan hezitzaileek aldian-aldian bilduko dira, hilean behin gutxienez, ikasgela hoien iharduna haztatzeko. Ikasturte bakoitza bukatu ondoren haur bakoitzarekiko orotariko balioneurketa bat egingo da, jarritako helburuen eta ihardutze-moduen egokitasuna ebatziz; balio-neurketa hori Teknika-Ikerlaritzari bidaliko zaio eta Herri nahiz Norbanako Jabetzapeko Ikastegietan egingo da, Irakaskuntza-Artezkaritzak horretarako eman ditzan artezpideen arauera.

*8garren atala.*—1. Aurreko Atalean aipatzen diren Ikastegietan, irakasleez gainera beste lanbidedun hauek izan ahal izango dituzte:

a) Gorputz-hezitzaileak, ibilmenaren aldetikako gaitz larriak, buruhelbarritasunak eta horrelakoak dituzten haurrak izan ditzaten Ikastegietan. Fisioterapeuta-tituloaren jabe izan bearko dute.

b) Mintzai-irakasleak, sendatu daitezkeen mintzoarekiko gaitdumak joan daitezeneko Ikastegietan. Erdi edo gorenmailako tituloaren jabe izan beharko dute, eta gai hoietzaz egindako ikasketei berarizko balioa emango zaie.

c) Lantegi-Maisuak. Lanbide-Hezkuntzako ikasgeletako berenezko irakasle eta arduradun izango dira. Lanbide-Hezkuntzako 2garren mailako Tituloaren jabe izan beharko dute.

d) Zaintzaileak. Hezkuntza-lanean irakasleei laguntzea izango dute bere funtsezko egitekoa; hoien lanak honako hauek izango dira:

- Busetango zaingoa.
- Janguarekiko arreta.
- Haurrei bere gorputz-beharretan laguntza ematea.
- Bakarrik ibiltzeko gauza ez diren haurrak eramatea.
- Ikastegiko Artezkaritzak eman diezaien horrelatsuko beste ezein egiteko.

Eritetxe-etxeko laguntzaile-tituloa, haurzaindari-tituloa edo hoien kideko lanbide-Hezkuntzako Lehenengo mailakoren bat eukitzea eskatuko da.

2. Lanari hoiek akuratzeko dagokion Lurralde-Ordezkaritzaren baimena beharko da, eta agiriko lehiaketaren bidez egingo da.

3. Artezko hezkuntza-lana egiten dutenen eta haurren zenbatekoen arteko heinak ezingo du 1/9-tik gorakoa edo 1/6-tik beherakoa izan, haur xorrak izan daitezenean salbu, orduan txikiagoa izan beharko bait-du.

*9garren atala.*—Irakasle batek gaitz-azterpena egitea behar duten haurrak daudela somatu dezanean dagokion Teknika-Ikerlaritzari jakinaraziko dio horrek, bidezko baderitza, arazoa hurrengo Atalaren gai den Antolakidetegiari ezegutarazi diezaion.

*10garren atala.*—Kondaira-Lurralde bakoitzean, Sailaren Lurralde-Ordezkariaren menpe egon eta Berarizko Hezkuntzaren alorrean Kondaira-Lurralde bakoitzean egiteratu daitezen ekintzapide guztien erakideketa orotariko helburu izango duen Berarizko Hezkuntzarako Antolakidetegi bana sortaraziko da. Orotariko helburu hori honako hauetan gauzatuko da:

a) Xehapen-biltegi gisa aritzea, Berarizko Hezkuntzako zerbitzu bereziekiko eta lanbidearteko taldeekin egitamuketa eta hoientzako tokiak ahalik eta ondoen zehazteko xedez ekintzak elkarri egokitu eta bere lurralde-eremuko benetako egoera aztertzeko.

*Artículo 7.*—En aquellos Centros, sean ordinarios de E.G.B. o específicos de Educación Especial, que tenga tres o más aulas de Educación Especial, los educadores se reunirán periódicamente al menos una vez al mes para evaluar el funcionamiento de las mismas. Al final de cada curso académico se realizará una evaluación global de cada niño juzgando la idoneidad de los objetivos y métodos propuestos; esta evaluación será remitida a la Inspección Técnica y se realizará tanto en Centros Públicos como Privados, de conformidad con las orientaciones que dicte al respecto la Dirección de Enseñanzas.

*Artículo 8.*—1. En los Centros Públicos a que se refiere el artículo anterior, podrá haber, además de los profesores, los siguientes profesionales:

a) Fisioterapeutas: En aquellos Centros en que existen niños con problemas motrices graves, parálisis cerebral y afines. Deberán estar en posesión del título de fisioterapeuta.

b) Logopedas: En aquelllos Centros donde asistan niños con problemas de lenguaje susceptibles de una rehabilitación. Deberán estar en posesión del título de grado medio o superior y se valorará especialmente cursos realizados en estas materias.

c) Maestros de Taller: Son los titulares y responsables de las aulas de Formación Profesional. Deberán estar en posesión del Título de Formación Profesional de 2.º grado.

d) Cuidadores: Será su misión fundamental auxiliar a los profesionales en el desarrollo del proceso educativo; sus funciones serán las siguientes:

- Vigilancia del autobús.
- Atención al comedor.
- Ayudar en las necesidades fisiológicas de los niños.
- Traslado de los niños que no puedan desplazarse solos.
- Cualquier otra función de características similares que le encomiende la Dirección del Centro.

Se exigirá el título de auxiliar de clínica, puericultura u otro similar a nivel de Formación Profesional de 1.er grado.

2. Para la contratación de este personal se requerirá la autorización de la Delegación Territorial correspondiente y se efectuará por concurso público.

3. La relación entre el número de personas que ejercen una acción educativa directa y el número de niños no deberá superar la proporción 1/9 ni ser inferior a 1/6, salvo en el caso de niños autistas que deberá ser inferior.

*Artículo 9.*—Cuando un profesor detecte la necesidad de niños necesitados de diagnóstico lo pondrá en conocimiento de la Inspección Técnica correspondiente, para que ésta, si lo considera oportuno, traslade el problema al Centro Coordinador a que se refiere el artículo siguiente.

*Artículo 10.*—Se crea en cada Territorio Histórico un Centro Coordinador de Educación Especial que, dependiente del Delegado Territorial del Departamento, tendrá como objetivo general la coordinación de todas las actividades que se lleven a cabo en Educación Especial dentro de cada Territorio Histórico. Este objetivo general quedará explicitado en las siguientes funciones:

a) Actuar como banco de datos para coordinar acciones y estudiar la situación real de su ámbito territorial en orden a una mejor planificación y ubicación de los distintos servicios de Educación Especial y equipos multiprofesionales.

b) Lanbidearteko taldeen ekintzak ahalik eta eginkortasunik haundiena lortzeko xedez antolakidetzea.

c) Lanbidearteko talde hoiek aukeratzen eta ontzat ematen eskuhartzea.

d) Irakasleak gaitzearen alorrean izan daitezen beharrak aztertu eta gaikuntza horretarako artezpideak ematea.

e) Berarizko Hezkuntzaren alorreango ikerketa.

f) Sailaren Lurralde-Ordezkaritzari eta Teknika-Ikerlaritzari honako gai hauei buruzko aholkuak ematea:

— Gaitasunik gabeko haurrentzako eskola-zerbitzu bereziak benetako beharrei egokitzeari buruz.

— Berarizko Hezkuntzarako ikasgelak antolatzeari buruz.

— Irakasleak izendatzeari buruz.

— Irakasbidetza-egitasmoari buruz.

— Berarizko Hezkuntzako ikasgela eta Ikastegiak irekitzeari eta ixteari buruz.

— Gaitz-azterpenak ontzat emateari buruz.

— Gaitasunik gabeko haurrei arreta egiteko moduei buruz.

— Berarizko Hezkuntzarekiko saioak suztatzeari buruz.

— Berarizko Hezkuntzako irakasleen gaikuntzari buruz.

— Berarizko Hezkuntzari buruzkoak izan eta aurrera ekarri dakizkion beste arazo guztiei buruz.

*11garren Atala.*—Kondaira-Lurralde bakoitzean, Sailaren Lurralde-Ordezkariaren menpe egon eta Berarizko Hezkuntzako Ikastegiei laguntza emateko lanbidearteko taldeak egongo dira. Hoien zenbatekoa eta tokizko banaketa Irakaskuntza-Artezkaritzak zehaztuko ditu eta honako lan hauek egingo dituzte, bakoitza berari dagokion Antolakidetegiak emandako artezpideei atxikiz:

a) Hirugarren Atalean esandako mendikutza-irakaspidetzazko azterpenak eta artezpide-egitamuak egitea.

b) Mintzai-irakaskuntzaren, gorputz-hezkuntzaren, sikolojiaren eta gainetiko alorretako sendabideak, haur bakoitzaren gaitz-azterpenari darizkion beharren arauera.

c) Berarizko Hezkuntzaren gai diren haurretako bakoitzaren aurrera-bideekiko arreta.

d) Haurrekin artezko harremanak dituzten irakasleei laguntza eta artezpideak ematea.

e) Lurralde-Ordezkariak edo Berarizko Hezkuntzarako Antolakidetegiak eman diezaizkien beste guztiak.

*12garren Atala.*—Honako hauek gutxienez osatuko dute lanbidearteko talde bakoitza:

— Sikiatra batek.

— Eskola-sikolojialari batek.

— Irakaspidelari batek.

— Gizarte-sorozlari batek.

— Bi sendabidelarik.

Talde bakoitzaren ihardutze-eremua Irakaskuntza-Artezkaritzak jarriko du.

*13garren Atala.*—1. Agizko Herri-Ikastegietan nahiz bestelakoetan Berarizko Hezkuntzako ikasgelak jartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

b) Coordinar la acción de los equipos multiprofesionales, tratando de lograr la máxima eficacia.

c) Participar en la selección y homologación de dichos equipos multiprofesionales.

d) Detectar las necesidades de formación de profesorado y orientar dicha formación.

e) Investigación en materia de Educación Especial.

f) Asesorar a la Delegación Territorial del Departamento y a la Inspección Técnica sobre:

— Adecuación de los distintos servicios escolares dedicados a los niños discapacitados a las necesidades reales.

— Acondicionamiento de las aulas dedicadas a la Educación Especial.

— Dotación de profesorado.

— Proyecto pedagógico.

— Apertura y cierre de aulas y Centros de Educación Especial.

— Garantía de los diagnósticos.

— Sistemas de seguimiento de niños discapacitados.

— Promoción de experiencias de Educación Especial.

— Formación profesorado de Educación Especial.

— Cualquier otro asunto relacionado con la Educación Especial que sea sometido a su consideración.

*Artículo 11.*—En cada Territorio Histórico existirán equipos multiprofesionales de apoyo a los Centros de Educación Especial dependientes del Delegado Territorial del Departamento. Su número y distribución territorial será determinado por la Dirección de Enseñanzas y se realizarán las siguientes funciones siguiendo las orientaciones del Centro Coordinador correspondiente:

a) Realizar los diagnósticos médico-pedagógicos y los planes de orientación a que se refiere el artículo tercero.

b) Realizar las terapias logopédicas, fisioterápicas, psicológicas, etc., según las necesidades de los niños que se deduzcan del correspondiente diagnóstico.

c) Seguir la evolución de cada uno de los niños sometidos a Educación Especial.

d) Apoyar y orientar al profesorado que está en contacto directo con los niños.

e) Cualquier otra que les sea encomendada por el Delegado Territorial o los Centros Coordinadores de Educación Especial.

*Artículo 12.*—Cada equipo multiprofesional estará formado al menos por:

— Un psiquiatra.

— Un psicólogo escolar.

— Un pedagogo.

— Un asistente social.

— Dos terapeutas.

El ámbito geográfico de actuación de cada equipo será establecido por la Dirección de Enseñanzas.

*Artículo 13.*—1. Para la creación de aulas de Educación Especial en Centros Ordinarios deberán cumplirse las siguientes condiciones, sean públicos o no:

a) Ikasgela jartzeko adinako tokia egotea. Luze-zabalez gutxienez 25 metro kuadro izatea eskatuko da, eta ikasgelak behar adina egunargi izan, eta Teknika-Sailaren iritziz ikasketak behar bezala eman ahal izateko modukoa izan beharko du.

b) Agindu honetan esanda bezala egindako gaitz-azterpenak diotenez Berarizko Hezkuntza behar dezaten 10 haur gutxienez egotea.

c) Irakaspidetza-egitasmo bat aurkeztea, honako hauek zehaztuz:

– Helburuak, banaka eta orohar.

– Ikasgelaren antolaketa eta horretzaz besteko Ikastegi-zatiarekingo harremanak.

– Izan daitezen gauzazko eskuarteak.

– Irakasketen abiadura-neurria eta balio-neurketetarako teknikabideak.

d) Sendabide-irakaskuntzan berariz gaitutako aski irakasle izatea.

2. Norbanako Jabetzapeko Ikastegiak izan daitezenean, ikasgela jartzeko baimenak ez du nahitaez dirulaguntza-ematea ekarriko.

BEHIN-BEHINGO ERABAKIA

1. Agindu hau indarrean jarri dedinean iadanik lanean ari daitezen Berarizko Hezkuntzako Ikastegi eta ikasgelak, 1982garreneko Abenduaren 31garrena baino lehen Irakaskuntza-Artezkaritzak horretarako emandako araupideen ariozko irakaspidetza-egitasmo bat egin, eta dagokien eremu-Ikerlariari eskuratu beharko diote.

2. Gaudeneko 1982/83 ikasturte honetan Antolakidetegiek egingo dituzte, Agindu honek dionaren arauera, Berarizko Hezkuntzako ikasle izan eta behar dezatenei buruz 3garren Atalak esaten dituen gaitz-azterpen eta artezpide-egitamuak.

3. Lanbidearteko taldeak eratu ez daitezen artean, Berarizko Hezkuntzarako Antolakidetegiak hartuko du bere gain Agindu honen hamaikagarren Atalean lanbidearteko taldeei izendatzen zaien gaitz-azterpenak egiteko lana.

AZKEN ERABAKIA

Irakaskuntza-Artezkaritzari, Agindu hau behar bezala osabideratzeko eta egiteratzeko beharrezko izan daitezen manuak emateko eskua ematen zaio; Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1982garreneko Irailak 2.

Hezkuntza-Sailburua,
PEDRO MIGEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

a) Existencia de espacio físico suficiente para la ubicación del aula. Se exigirá una superficie mínima de 25 $m^2$ y el aula deberá tener iluminación natural suficiente y reunir a juicio de la Unidad Técnica los requisitos necesarios para impartir las clases debidamente.

b) Existencia de al menos 10 niños diagnosticados como necesitados de Educación Especial en la forma que se establece en la presente Orden.

c) Presentar un proyecto pedagógico en el que se hagan constar:

– Objetivos tanto individuales como globales que se pretenden conseguir.

– Organización del aula y relación con el resto del Centro.

– Recursos materiales de que dispone.

– Ritmos y técnicas de evaluación.

d) Disponibilidad de profesorado suficiente especializado en pedagogía terapéutica.

2. En el caso de Centros Privados la autorización del aula no llevará consigo necesariamente la concesión de subvención.

DISPOSICION TRANSITORIA

1. Los Centros y aulas de Educación Especial que a la entrada en vigor de la presente Orden se hallen en funcionamiento deberán elaborar antes del 31 de Diciembre de 1982 un proyecto pedagógico, siguiendo las instrucciones que al efecto establezca la Dirección de Enseñanzas, y entregarlo al Inspector de zona correspondiente.

2. Durante el presente curso académico 1982/83 los Centros Coordinadores procederán a la realización de los diagnósticos y planes de orientación a que se refiere el artículo 3 de los alumnos que cursen Educación Especial y que así lo precisen, de conformidad con lo dispuesto en la presente Orden.

3. En tanto no estén creados los equipos multiprofesionales el Centro Coordinador de Educación Especial asumirá las funciones de diagnóstico asignadas a los equipos multiprofesionales en el artículo once de la presente Orden.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza a la Dirección de Enseñanzas a que dicte las instrucciones necesarias para el mejor desarrollo y ejecución de la presente Orden, que entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de Setiembre de 1982.

El Consejero de Educación,
PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR.